



EBAZPENA, 2010EKO EKAINAREN 10EKOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, ZUZENDARI BERAREN 2009KO URRIAREN 15EKO EBAZPENA ALDATZEN DA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN, BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN, LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN ETA HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEEN KIDEGOETAKO PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOAN JARDUNGO DUTEN KALIFIKAZIO-BATZORDEAK IZENDATZEN DIRA.

2008ko azaroaren 28ko Aginduak (abenduaren leko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuen deialdia egiten duenak, 12. oinarrian xedatutakoaren arabera, irakaskuntza-praktikak egin behar dira horiek egitetik salbuetsita ez dauden izangai hautatuen irakasteko gaitasuna baloratzeko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoetan sartzeko, 2007ko azaroaren 19ko Aginduaren bitartez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako izangai batzuei legez onartu zitzaizen praktikak egitea atzeratzea hautatuak izan ziren kidegoetako batean eta orain, berriz, kidego horretantxe atzeratutako praktikak egiten hasiko dira.

Azkenik, epaileak esandakoa betetzeko, praktikak egingo dituzte 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bitartez (azaroaren 14ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoetan sartzeko deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako izangaiek.

Horretarako, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2009ko irailaren 17ko ebazpena onartu zen, hautaketa-prozedura horietako praktiketako funtzionarioen praktika-aldia arautzen duena. Horren artikuluetan kalifikazio-batzordeen osaeraren berri eman beharra aurreikusten da.

Jarraian, 2009ko urriaren 15eko Ebazpena argitaratu zen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten kalifikazio-batzordeak izendatzen dira.

Gertatutako inguruabarren ondorioz, Maisu-maistren Kidegoko praktiketako funtzionarioen ebaluazioan Gipuzkoan jardungo den kalifikazio-batzordearen lehendakariaren izendapena aldatu behar da.



Horregatik, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Langileriaren Kudeaketa Zuzendariaren 2009ko urriaren 15eko Ebazpena aldatzea. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen praktiketako kidegoetako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten kalifikazio-batzordeak izendatzen dira. Aldaketa ondorengo baldintzetan da:

Gipuzkoan Maisu-maistren Kidegoko praktiketako funtzionarioak ebaluatzeko, María Arrate Oianguren Txurruka andrea Kalifikazio-batzordeko lehendakari izendatzea, Lorenzo De Juan Fonsecaren ordez.

Bigarrena.- Izendapen horren berri ematea Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko web-orrialdean: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Hirugarrena.- Kalifikazio-batzordeetako kideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan abstentzioari eta ezespeneri buruz ezarritakoa aplikatuko zaie.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 10a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA